# HARREMANAK

Gure enpresak harremanen aldetik ez du bezeroarekin aurrez aurreko kontakturik edukiko, baizik eta bezeroekin edukiko dugun harremana gehiago web edota erantzungailu automatikoen bidezkoa izango da.

Beti kontuan izan behar dugu lan-giroan harreman onak izatea garrantzi handia hartzen duen faktorea dela; izan ere, horrek langilearen gogobetetze pertsonalean ez ezik, enpresaren produktibitatean ere eragina izan dezake, eta, beraz, gure lankideekin lotura egokia sortu behar dugu, lan-giro erosoa lortuz. Horretarako, lankideekiko interesa erakutsi behar dugu, proiektuetan integratu, elkarrizketetan parte hartu, harreman adeitsua izan eta, aldi berean, besteekiko jarrera asertiboa erakutsi. Horrek guztiak hori lortzen lagunduko duela gogorarazi du.



Gure enpresaren motibazioa eta arrazoi nagusia soziala da, herritarrei naturak dituen galeraz ohartaraztea da, gaur egun oso egoera txrrean baitago eta apurka-apurka laguntzen joan behar gara. Horregatik gure proiektuak informazioa ere emango du naturaren egoerataz eta zenbat laguntzen ari diogun, gure produktuak erosterakoan. Gure motibazioa ere, denda txikiei laguntzea da bezero ezberdinak erakarriz eta hauek ohiko bezero bihurtuz, baina betikoak ere mantenduz, izan ere, denda eta taberna horiek beraien betiko gauzak salduko diztuzte, eta egunaren amaieran soberkin horiek(egoera onean



daudenak) saldu egingo dituzte, baina prezio merkeago batean, horrela bezero berriak erakarriz.